



# Ugarterrota

etxebizitza

Aldacrak:  
Ahozkoa: Errótie / Ugérterrota

*“... la casa molino titulada  
Sarriugarte... situada en  
jurisdicción de la Anteiglesia  
de Berriz, que comprende con  
inclusión de la tejabana, zaguan  
y huerta, trescientos cuarenta  
y nueve estados, equivalentes  
a trece áreas y veinte y ocho  
centiáreas decabida, y la que se  
compone de piso bajo y alto, y  
de tres molindas, con sus corres-  
pondientes pisos, divisiones y  
habitaciones...”  
DJE, 2/215 or. (1870)*



43°11'1"

2°35'56"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Arrierreka ur-emariak aprobetxatzen zituen erro-  
tetako bat dugu honako hau, Sarria kofradiaren  
beheko aldean kokatzen dena, bertako eskolen  
parean. Baliteke *Sarriugarte* (**Ikus Sarriugarte**)  
baserriarekin lotura izatea, eta baliteke, horren  
ondorioz, dokumentazioan gehiegi ez agertzea.  
1859ko izendegian agertuko da lehenengoz,  
*Ugarteco-errotéa* (1859, BUA, Nmcr) moduan, eta  
XX. mendean errota honi egindako aipamenak  
ugariagoak izango dira: *Ugarteco Errota* (1905,  
BUA, 40) eta *Molino de Ugarte* (1910, BUA, RU)  
mende hasieran, eta euskarazko izendapena  
1967ko eraikin-errolan, hots, *Ugarterrota*. Au-  
zotarren artean, *Errótie* eta *Ugérterrota* dira aho-  
zko formarik erabilienak.

Eraikin desberdinen arteko multzoan, etxea  
zurituta dagoelako gailentzen da. Errotaren  
ondoan kokatzen da, puntu-erdiko arkua duen  
ubidean, XVIII. mendean egiten zirenen mo-  
dukua. Etxeak solairu bi eta teilatupea ditu,  
bi isurkitako estalkiaren azpian. Obra xumea  
izan zen, horrelako eraikinetan gertatzen zen  
moduan, guztiz harlangaitzaz egina. Gainera,  
asimetrikoa da, teilatuaren ardatza kontuan  
hartzen badugu. Baoak leiho-erakoak dira,  
solairu bakoitzeko bi balkoiak izan ezik. Hala,  
lehenengo pisukoa alde batean dago, sarrerako  
atartearen gainean; baina bigarrena dugu inte-  
resgarriena. Teilatuaren ardatza eta habea ere  
bistan dauzka, eta hegal zabalari eusteko bi be-  
soen artean kokatuta dago.

toponimia

*Ugarte hitz arrunta da eta ibaietan dauden irlak izendatzeaz gain bi erreken arteko gunea ere izan daiteke. Hitz honen osagaiak ur eta arte dira. Kasu honetan izenaren bigarren zatiak baserriaren funtzionaltasunarekin lotuta dago. Seguruenik Ugarte edo Sarriugarte baserriaren errota izango zen honako hau, hortik hartzen duen izena.*